Lan-eskaintzen erregistroa 2019ko urtarrilean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2019ko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.085ekoa izan da, abenduan baino 388 gehiago eta joan den urteko urtarrilean baino bat gehiago. Egunean bataz bestez 49 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 8 eskaintza gehiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2019ko urtarrilean 170 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 425 Gipuzkoan eta 490 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 45,2 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 39,2 Gipuzkoan eta % 15,7 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 60,4 hazi dira eskaintzak (64 eskaintza gehiago), Gipuzkoan % 61 hazi dira (161 eskaintza gehiago) eta Bizkaian eskaintza kopurua % 49,8 hazi da (163 eskaintza gehiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban eskaintza kopuru 30 eskaintzatan hazi da, % 21,4ko hazkundea; Gipuzkoan 3 eskaintza gutxiago erregistratu dira, % 0,7ko murrizketa; azkenik, Bizkaian 26 eskaintza gutxiago izan dira, % 5eko murrizketa.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. 5 eskaintzatik 1 baino gehiago zerbitzuetako lanbide-profilerako erregistratu da (214 eskaintza); industriako langileen lanbide-profilak dira hurrenak (211). Zientzia teknikari, laguntzarako teknikarien eta okupazio ez kualifikatuen lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 172, 161 eta 130 eskaintza erregistratu dira, hurrenez hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu den profila zuzendariena izan da (8 eskaintza soilik), lehen sektoreko langileen eskaintzen atzetik (10 lan-eskaintza).

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi diren eskaintzak, balore erlatiboetan, zuzendarienak izan dira (% 300ko hazkundea, 6 eskaintza gehiago); balore absolutuetan, aldiz, industriako langileenak izan dira (93 eskaintza gehiago, % 78,8ko hazkundea).

Urte arteko saldoari erreparatuz, zientzia teknikarien eskaintzak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (22 eskaintza gehiago, % 14,7ko hazkundea), balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektoreko profileko langileenak (%42,9ko hazkundea, 3 eskaintza gehiago). Balore erlatiboetan gehien murriztu diren eskaintzak operadoreenak izan dira (% 11ko murrizketa, 9 eskaintza gutxiago); balore absolutuetan, ordea, industria sektoreko langileen eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (14 eskaintza gutxiago, % 6,2ko murrizketa).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 13,9k kontratu mugagabea eskaini dute; % 85,2k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,9k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 151 izan dira, 54 gehiago aurreko hilabetearekin alderatuz, % 55,7ko hazkundea. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 329 gehiago erregistratu dira: 924 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 55,3koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2019ko urtarrilean 10 izan dira, aurreko hilean baino 5 gehiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 6 gutxiago izan dira (% 3,8ko murrizketa), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 1,9 hazi dira, 17 eskaintza gehiago eta merkataritzako kontratuak, aldiz, %20 murriztu dira (10 eskaintza gutxiago).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA



2019ko urtarrilean erregistratutako lan-eskaintzen ia 2 herenek (709 eskaintza) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 18,5k (201) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Eskaintzen % 12,4k, 135ek, urte 1etik 3ra arteko esperientzia eskatzen du. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; % 2,6ko eta % 1,1eko pisua dute, hurrenez hurren (28 eta 12 eskaintza guztira).

Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak hazi dira. Balore absolutuetan gehien hazi diren eskaintzak 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (222 eskaintza gehiago, % 45,6ko hazkundea). Balore erlatiboetan, aldiz, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak hazi dira gehien, % 300eko hazkundea (9 eskaintza gehiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da: balore absolutu eta erlatiboetan gehien hazi diren eskaintzak 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak izan dira (10 eskaintza gehiago, %500a). Hazi egin dira, baita ere, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak eta 6 eta 12 hilabete artekoa eskatzen dutenak, 5 eta 2 eskaintza gehiago hurrez hurren. Murriztu diren eskaintzak 1 eta 3 urte arteko esperientzia 3 eta 5 urte artekoa eskatzen dutenak izan dira (8 eskaintza gutxiago bi kasuetan, %5,6 eta %22,2ko jaitsierak, hurrenez hurren).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 8 hileko esperientzia eskatzen dute, 2018ko urtarrilean eta abenduan bezainbeste.

- **LANALDI MOTA**

Analisiarekin hasi baino lehenago, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 19,1k zehazten du datu hori (1.085 eskaintzetatik 207). 207 eskaintza horietatik, 147 (% 71) lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 60ak lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 46 gehiago izan dira abenduarekin alderatuz, hau da, % 45,5 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 17 gehiago izan dira; hazkundea % 39,5ekoa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 2 gehiago izan dira (% 1,4ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko 3 eskaintza gutxiago erregistratu dira (% 4,8ko murrizketa). Aztertutako hiru hilabeteetan (2018ko urtarrila eta abendua eta 2019ko urtarrila), lanaldi partzialeko eskaintzen pisu handiena 2018ko urtarrilean izan da, % 30,3ko pisuarekin, lanaldi mota zehazten duten eskaintza guztien aldean.

- **ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)**

Erregistratutako eskaintzen % 1,9 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 1.085 eskaintzetatik 21 soilik. Aurreko hilean 4 izan ziren.

- **ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA**

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 81,4k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.085 eskaintzetatik 202k soilik zehaztu dute.



202 eskaintza horietatik, 86k LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 42,6k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 59 eskaintza (% 29,2). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 44 eskaintzekin (% 21,8). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 13 eskaintzekin, eta % 6,4ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 202 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago urtarrilean lan-eskaintza gehiagotan zehaztu dela prestakuntza maila abenduan baino (202 eskaintza), eta hauen pisua ere handiagoa izan da eskaintza guztien artean (% 18,6koa). Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota

guztiak hazi dira. Gehien hazi diren eskaintzak balore erlatiboetan batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira, % 160ko hazkundea (8 eskaintza gehiago). LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira, aldiz, gehien hazi direnak balore absolutuetan, 36 eskaintza gehiago (% 72ko hazkundea).

2018ko urtarrilarekin alderatuz, batxilerra eskatzen duten eskaintzak izan dira murriztu diren bakarrak (eskaintza 1 gutxiago, % 7,1eko jaitsiera). Gainontzeko eskaintza mota guztiak hazi egin dira; gehien hazi direnak, bai balore erlatiboetan bai absolutuetan, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (20 eskaintza gehiago, %83,3ko hazkundea).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduerak manufaktura-industria, merkataritza eta osasun-jarduerak dira, eskaintzen % 17,9ko, % 15,4ko eta % 8,5eko pisuarekin, hurrenez hurren (195, 167 eta 92 lan-eskaintza 1.085 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz gero, gehien hazi diren eskaintza motak balore absolutuetan manufaktura industrietakoak izan dira (98 eskaintza gehiago, % 101eko hazkundea). Balore erlatiboetan, aldiz, higiezinen arloko jardueren eskaintzak izan dira (% 600eko igoera, 6 eskaintza gehiago). Eboluzio negatiboa izan duten gutxien artean, balore absolutuetan bilakaera txarrena izan dutenak osasun jardueren eskaintzak izan dira (12 eskaintza gutxiago, % 14,6ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, ur horniketako eskaintzak izan dira (% 30,8ko murrizketa, 4 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, balore absolutuetan eboluzio okerrena pairatu duten eskaintzak merkataritzakoak izan dira (22 eskaintza gutxiago, % 11,6ko murrizketa). Balore erlatiboetan, aldiz, jarduera artistikotakoak izan dira gehien murriztu direnak (% 56,3ko murrizketa, 9 eskaintza gutxiago). Bestalde, balore absolutuetan bilakaera onena izan duen jarduera manufaktura industriakoa izan da (26 eskaintza gehiago, % 15,4ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektoreko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (% 450eko hazkundea, 9 eskaintza gehiago).